

Hernaniko Osoko bilkurak 2026ko uztailaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERNANIKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

2007tik abian den egitasmoa da, Buruntzaldeko egitasmoen barruan sortua. Ahozko komunikazioa lantzea da proiektu honen helburua, horretarako bertsolaritzaren hainbat baliabide erabiliz. Bertsolaritzak hizkuntza normalizazioan lagun dezake, hizkuntza haurren eta gazteen aurrean prestigioatu eta erabiltzeko motibazio pizgarri izan baitaiteke.

Bestalde, 2023ko irailean udalak onartutako *Herriari begirako Euskara plana 2023-2027* izeneko planean aisialdia lehentasunezko lerroaren barruan *Gazteen ahozkototasuna lantzea* da lan lerroetako bat, eta abian den egitasmo honek bete-betean erantzuten dio lerro horri ere.

Bertsozale Elkartek bideratzen duen egitasmoan herriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartzen dute parte: Elizatxok, Langilek, Aratzek, Txiritak eta Urumeak.

Gu ere bertsotan egitasmoa kontratu txiki bidez eman izan du Bertsozale Elkartek 2007-2008 ikasturtetik 2025-2026 ikasturtera arte, enpresa bakarraren justifikazio eginda euskara teknikariak, ez baitago antzeko egitasmorik eskaintzen duen beste elkarerik. Urtez urteko egitasmoa denez, enpresa bakarra dagoenez egitasmoa eskaintzen duena eta udalak aurrekontuaren zati bat ordaintzen duenez (gainerakoa ikastetxeek ordaintzen dute), egokiagoa ikusi da dirulaguntza zuzen bidez egitea, Bertsozale Elkartarekin hitzarmena sinatuta.

Sinatuko den hitzarmena Hernaniko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko saioak diruz laguntzeko da, haur eta gazteek ahozkototasuna landu dezaten.

Hori horrela, sinatuko den hitzarmenak ondokoak jasotzen ditu:

- Iraupena: Hitzarmenaren iraupena urtebetekoa izango da 2026ko irailaren 1etik 2027ko ekainaren 30era.
- Zenbatekoa: Aurrekontu osoa 25.618,53 €.
 - Hernaniko udalak 15.000 euroekin lagunduko du egitasmoa.
 - Gainerako 10.618,53 €. ikastetxeek jarriko dute.
- Ordainketa modua: Urrian lehen zatia, %40. Otsailean bigarrena, %30. Eta ekainean gainerako %30a edo likidazioa.
- Aurrekontu kontusaila: 1 1811.481.03.323.00 2026 7889 DIRULAG.GIP.BERTSOZALE ELKARTEA

Dirulaguntza zuzenen aurrekontuan jasota ez dagoenez egitasmoa, aurrekontua aldatu egin behar da dirulaguntza onartzeko.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Kontuan hartu da Herriarrentzako zerbitzuen atzordeak 2026ko uztailaren 09ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak **AHO BATEZ** erabaki du

1.- Dirulaguntza Zuzena onartu eta honen hitzarmen arauak.

Onuraduna: Gipuzkoako Bertsozale Elkartea
Xedea: Hernaniko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko saioak diruz laguntzea
Kopurua: 15.000 €
Kontusaila: 1 1811.481.03.323.00 2026

2.- 2026ko udal aurrekontuaren aldaketa tramitatu eta honen Diru-laguntza eranskina aldatzea.
Dirulaguntza partida berria: 1 1811.481.03.323.00 2026 7889 DIRULAG.GIP.BERTSOZALE ELKARTEA
Finantzaketarako partida: 1 1811.226.06.323.00 2026 4454 Ekimenak. Ikastetxeetan kultur ekintzak.

3- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako.

4- 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aldaketa jaso.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe.

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko bitarteko Udal Idazkaria
Hernanin 2026ko abuztuaren 14ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoen bitartez

